

MERKATARITZA MODERNIZATZEKO PROGRAMA (FUNTS TEKNOLOGIKOA)

HELBURUA: Diru-laguntza horien helburua, merkataritza-sektorearen eraldaketa digital eta jasangarriaren bidez, lehiakortasuna eta modernizazioa sustatu eta bultzatzea da.

ONURADUNAK

Erakunde onuradunak:

- a) Merkataritza-sektoreko mikroenpresak, enpresa txiki eta ertainak (aurrerantzean, ETEak). negozioaren jardura nagusia 2009ko Jardura Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45, 46 edo 47 kodeetan jasotako jardueretako batekin bat datorrena.
- b) Elkartek, bai eta zenbait merkatar-elkarte edo legez eraturako federazio eta konfederazioak osatzen dituzten elkartek ere (aurrerantzean, elkartek). Elkartek legez eraturak egon beharko du oinarri arautzaile hauek onartzen dituen agindua argitaratu aurretik, eta 2009ko Jardura Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45, 46 edo 47 kodeetan jasotako jardueraren bat duten bazkideen % 40, gutxienez, bildu beharko du.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN INBERTSIOAK

1. **Eraldaketa digitalera bideratutako gastuak:** bezeroaren arreta, harremana, ezagutza eta leialtasuna hobetzera bideratutako inbertsioak, teknologia berriak eta analitika aurreratuko teknikak erabiliz, omnikanalitatea sustatzeko, erosketa-esperientzia hobetzeko, zibersegurtasuneko soluzioak, barne-komunikazioa hobetzeko plataformak edo mugikorretarako edo beste gailu batzuetarako aplikazio informatikoak.
2. **Salmenta-puntua eraldatzeko inbertsioak:** eragiketak automatizatzea, teknologia berriak aplikatzea, altzari teknologikoak eskuratzea, marketin erlazionala sartzera, eta merkataritzaren beraren kudeaketa hobetzearekin zerikusia dutenak.
3. **Jasangarritasunerako eta ekonomia zirkularrerako inbertsioak:** sargaien kontsumoa murriztea, produktua banatzeko, entregatzeko eta itzultzeko eragiketak optimizatzea, energia-eraginkortasuna hobetzea, entrega-puntu adimendunak instalatzea edo

energia-iturri berriztagarriak instalatzea, iraunkortasuna handitzeko beste irtenbide batzuen artean.

4. **Hornidura- eta trazabilitate-katerako inbertsioak:** tokiko ekoizleen lankidetzaplataformak, Km0-ko hornitzaileen integrazioa, produktuaren trazabilitatea ezagutzeko teknologia berriak eta eskaintako aukeraren optimizazioa, lineal fisikoan edo online.
5. **2 linearako bakarrik, elkarteak:** merkataritza-guneetan WiFi sareak instalatzea eta merkataritza-eskaintzari buruzko informazioa ematen duten aplikazioak, ondareko elementuekin batera, turismoa sustatzeko gastronomia-, kultura- eta erosketa-eremuetan.

INBERTSOEN EZAUGARRIAK

- Finantzatu ahal izateko aurkezten diren inbertsio-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu beharko dira.
- Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuei dagokien gutxieneko inbertsioak, zerga-mota guztiak kenduta, zenbateko hauek izan beharko ditu:
 - ETEentzat, gutxieneko inbertsioa 1.500 €-koa izango da (BEZa kanpo).
 - Elkarteen elkarte edo batasunetarako, gutxieneko inbertsioa 50.000 eurokoa izango da (BEZa kanpo).
- Soilik onartuko dira 500 euroko edo hortik gorako zenbatekoa duten fakturak, BEZa kenduta, eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen deskribapena argi eta garbi identifikatuta badago, eta kontzeptu kodeturik ez da onartuko.

LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA:

1. Diru-laguntzak **norgehiagokarik gabeko lehiaren** prozeduraren arabera tramitatuko dira.
2. Laguntzak emateko, eskatutako baldintzak bete beharko dira, eta diru-laguntza jaso dezakeen egoera edo proiektua bat datorrela egiaztatu ondoren, dokumentazio guztia behar bezala bete ondoren, eta eskabideen artean konparaziorik egin beharrik izan gabe, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte.
3. Aurrekontuko dirua agortzen bada, laguntza berriak ematea gelditu eta ebatzi gabe dauden eskaerak ezetsi egingen dira.

DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa diruz laguntzen ahal diren **gastuen % 100era** iristen ahalko da.

Entitate eskatzaileak gehienez ere **50.000** euroko diru-laguntza emanen du **ETEen kasuan** eta **100.000** eurokoa elkarteen kasuan.

AURKEZPEN EPEA

Eskaera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez soilik eskuratu eta bete ahal izango da. Egoitza hori honako hau da: <https://www.euskad.eus/servicios/1221401>

- Eskaerak aurkezteko irekiera epea: **2022ko abenduaren 20an** irekitzen da.
- Eskaerak aurkezteko amaiera epea: **2023ko urtarrilaren 19an** amaituko da.
- Diruz lagundu daitekeen denbora tartea: **2022ko urtarrilaren 1tik 2023ko martxoaren 31era bitartean** (biak barne).

Informazioa gehiago nahi izan ezkeru edota zalantzak izanez gero, egin kontsulta **Gipuzkoa Turismo eta Merkataritza Lurraldeko Bulegoan:**

- Telefonoa: **945018000**
- Emaila: **ayudas_fondotecnologico@euskadi.eus**